




Gizatearen eta bere gizarteratzeko  
eta laneratzeko enpresa bazkideen

# Etika Kodea



Asociación de Empresas  
de Inserción del País Vasco  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko  
Euskadiko Enpresen Elkarte





Gizatearen eta bere gizarteratzeko  
eta laneratzeko enpresa bazkideen

## Etika kodea



Asociación de Empresas  
de Inserción del País Vasco  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko  
Euskadiko Enpresen Elkarte

Argitalpenaren laguntzailea:



Gizatearen eta bere gizarteratzeko  
eta laneratzeko enpresa bazkideen Etika Kodea

2009ko abendua

Gizatea

Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco

Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte

Ekain Kobak 3, 1 • 48005 Bilbo

Tel.: 944 160 566 • Faxe: 944 156 319

gizatea@gizatea.net

www.gizatea.net

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Labayru Institutua

Inprimaketa: Lankopi, S.A.



Aitortu-Ez merkatarizarako-Lan eratorririk gabe 3.0

Dokumentu hau Creative Commons-en lizentziazpean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta. Baimen osoa:  
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/deed.eu>



# Aurkibidea

<b>Etika kodea</b>	5
Zutabeak	7
Egitura	8
Helburuak eta irismena	9
<b>Erreferentziazko esparru etikoa</b>	11
Printzipio hauekin bat egiten dugu	14
Gure lanerako estiloa definitzen duten balioak	15
Jarduera-arau hauek betetzeko konpromisoa hartzen dugu	17
1. Gizatea Elkartea	19
2. Erakunde Sustatzaileak eta Pertsona Fisiko edo Juridikoak	23
3. Gizarteratzeko eta Laneratzeko enpresak	25
<b>Etika kodea ezartzea, betetzea eta hedatzea</b>	31
Etika kodea ezartzeko mekanismoak	33
Etika kodeko edukiak aztertzea eta aldatzea	33
Etika batzordea	33
Osaera	33
Zereginak	33
Funtzionamendua	34
Informaziorako konpromisoa	35





Etika kodea





## Zutabeak

**1.** Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen eginkizuna da lan merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak gizarteratzea eta laneratzeta. Enpresa horiek, ohiko enpresa guzti-guztiek bezalaxe, zerbitzuak eskaintzen dituzte behar diren pertsonekin eta baliabide teknikoekin, baina, horrez gain, desabantaila sozialeko egoeran dauden pertsonen enplegu arrunterako bidea ere ematen diete, denbora jakin batean lagunduta eta lanpostu bat beteta. Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak, jokatzen duten paperetik, eta beraien ahaleginekin eta baliabideekin, Eginkizun horren garapenean laguntzeko *dira eta daude*.

Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkar-teak (Gizatea) gizarte justuago bat eraikitzeko egiten du lan. Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak sustatuta eta haiei lagunduta egiten du, eta enpresa horien zerbitzura dagoen tresna bat da, enpresok duten helburu nagusia bermatzeko: ohiko lan merkatutako zailtasunak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzeta areagotzea eta hobetzea.

Elkar-teak daukan errazteko rolari esker gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkide guztiek taldean eta eragin-kortasunez jorra ditzakete aurrez aurre dituzten erronkak. Hiru helburu lortu nahi ditu: 1) enpresen arteko lankidetzeta sustatzea; 2) sektorea hobetzen eta indartzen laguntzea; eta 3) erakunde publikoen aurrean eta gizartearen aurrean elkarrizketa bilatzea.

**2.** Nola gizarteratzeko eta laneratzeko enpresei, hala ordezkatzeko dituen elkar-teari dagozkien helburuak betetzeko modua ugaria eta desberdina da.

Zeregin konplexu bat sustatzera eta garatzera bideratuta daudenez, zeregin horri aurre egiteko modu ugari daudela onartu behar da. Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen zein elkar-tearen beraren eginkizuna garatzeko aukera askotarikotasuna kontuan hartuta; alternatiba ugarien aurrean erabakigune asko daudela onartuta; eta enpresa-estrategia zehatzak errespetatu behar direla aitortuta, ezinbestekoa da erreferentzia-marko komun bat izatea, orientazio bakar batekin, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa guztiek onartzen eta partekatzen duten konpromiso etiko baten isla izan dadin; eta garatzeaz eta betetzeaz arduratu beharko dira.

**3.** Erreferentzia-marko hori gauzatzeko partekatzen dituzten printzipio batzuk eta lanerako estilo jakin bat hartuko dira oinarritzat. Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresa Elkar-tea lanean ari da egitura horiek bai sektorearen barruan, bai gizartean, onartuak izan daitezten, partekatutako printzipio horien eta bere lan-estiloa definitzen duten balioen arabera. Etika kode horren lehenengo helburu orokorra erreferentzia-marko komun hori zehaztea da, printzipio eta balio horien inguruan zehaztea, hain zuzen ere.

**4.** Printzipio eta balio horiek zentzua ematen diote Gizartearen inguruan gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresak biltzen dituen eginkizunari. Borondate praktiko hutsarekin, kode honek, helburu nagusietan bigarren bezala, aplikazio praktiko bat lortu nahi du, hau da, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen zein elkar-tearen beraren egunero-ko jardunean sar eta ikusaraz dadin. Helburua da erreferentzia etikoko marko komun hori Gizateari lotutako egitura

guztietan ezagutzea eta partekatzea; hau da, kodea modu eragingarrian sartzeari, egitura horietan guztietan egon dadin eta aplikatu dadin.

**5.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen eta Gizatearen esparruan kodea tresna erabilgarria, ezaguna eta erabilia izatea da asmoa. Kodea praktika egokiak sortzera eta kalitate etikoko irizpideak sartzera bideratuta dago, horiengatik ezagunak izateko. Horrez gain, Gizatearen lanerako moldea zailduko duten edo haren kontrako praktikak eta portaerak eragotzi nahi ditu.

## Egitura

**7.** Kodearen lehenengo parteak Gizatearen eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideen jardura eta harreman estiloa inspiratzen duten printzipioak eta balioak aldarrikatzen ditu.

**8.** Etika kode hau hauei zuzenduta dago:

- Gizatea Elkarteari
- Erakunde sustatzaileei, beraiek sustatzen eta eratzen dituzten enpresekiko duten erantzukizunagatik.
- Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresei.

**6.** Gizatean uste dugu gizarteratzea, berdintasuna eta gizarte eraldaketa kontzeptuak ez direla ikuspuntu teoriko, tekniko edo ekonomiko hutsetik ulertu behar. Aitzitik, Gizatearen jarrera eta borondate politikoa jasotzen eta adierazten duten kontzeptuak dira, gure gizartean lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzeari eragingarria eta benetakoa izan dadin.

Horietako bakoitzarentzat kodeak zeregin marko zehatz bat ezartzen du, eta marko hori zehazteko euren lanean artatzen dituzten kolektiboekin horiek guztiek duten harremana hartu da kontuan.

**9.** Agiri honen azkeneko partean kodea ezartzeko, betetzeko eta zabaltzeko baldintzak jasotzen dira.

## Kodearen helburuak eta irismena

**10.** Etika kode hau Gizatearentzat, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan eta beraien erakunde sustatzaileentzat da.

**11.** Kode honetan balioak, printzipioak eta arauak zehazten dira, Gizateako eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako eragile eta egitura guztietarako gida izan daitezen, hain zuzen ere. Ez da egoera guztien aurrean nola jokatu behar dugun ezartzen duen arau multzo bat.

**12.** Etika kode honetan ez da zehazten zein balio edo arau diren garrantzitsuenak edo beste batzuen gainetik zeintzuek duten lehentasuna elkarrekiko gatazkan sartzen direnean. Oinarri bezala hartuta, informatutako epaien ezarpenaren oinarriari buruzko erabaki etikoak hartzen lagundu behar digu, batez ere arazo etikoren bat agertzen denerako. Edozein kasutan, hartuko diren erabakiak kodearen arabekoak eta harekiko koherenteak izan beharko dira.

**13.** Kodea Gizatean edozein eratako arduraren bat duten pertsona guztiei ezartzen zaie, baita gizarteratzeko eta laneratzeko enpresei zein beraien erakunde sustatzaileei ere, duten rola edo zeregina gorabehera.

**14.** Etika kode honek helburu hauek ditu:

a. Gizatearen oinarriko balioak laburbiltzen ditu, eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek zerikusia

duten eragile eta agente guztien jardueretarako eta harremanetarako gida izango diren arau etikoak ezartzen ditu.

b. Gizatearen jarduerak oinarritzat duen estiloa identifikatzen du eta, ondorioz, baita gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideenak ere.

c. Zalantza etikoen aurrean aukera nabarmenenak identifikatzen laguntzen du.

d. Gizateako pertsonen edota organoen erantzukizunak eskatu ahal izateko arau etikoak ematen ditu.

e. Gizatean beren jarduna hasten duten gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen artean Elkarteen helburua, balioak eta arau etikoak sozializatzen laguntzen du.

f. Gizatearen eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideen kalitatearen sustatzailea da, eta horien guztien jardura profesional onerako erantsitako motibazio iturria ere bai.

g. Pertenentzia ulertzeko modu sakonago eta sustraituago bat finkatzeko gako-adierazlea da.

h. Gizatearen instituzionalizazioa egiteko arduradun Batzorde Etikoa eratzeko oinarria da, baita gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen artean sustatzeko ere.





Erreferentziazko esparru etikoa



Kode honen oinarria den esparru etikoak ahalmen hauek ematen ditu:

- **printzipioak identifikatzea** Gizateako gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideen eginkizunaren oinarria izateko;
- lanerako estiloa zehazten duten **balioak laburbiltzea**;
- eta **arau etiko batzuk ezartzea**, Gizateako gobernu organoen, erakunde sustatzaileen, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako zuzendaritzen zein horietan edozein mailatan parte hartzen dutenen gida izan dadin, beren jarduera eta beren harreman-esparrua arauon arabera bideratzeko eta definitzeko.

Gizatearako eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetarako komuna den erreferentziako esparru etiko hau ohiko lan merkatutik baztertuta dauden pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen sustapenean aurrera egiten laguntzeko pentsatuta dago.


Gizateak printzipio, balio eta jarduera arau horiek onartzen, sustatzen eta defendatzen ditu bere elkarte-mugi-

menduan, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideak horien bidez identifikatu behar diren uste sendoa baitauka, besteetatik bereizteko.

Aldi berean, gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen interesak defendatzea bermatzeko oinarrizko elementu bat da horien integrazioa.

Printzipio, balio eta arau horiek erakunde bazkideen interes kolektiboaren defentsaren oinarria ere badira, baita helburu horretarako zerbitzu eta jarduera guztiak sustatzera eta gauzatzeko oinarria ere.

Finean, Gizateak, printzipio eta balio horien bidez, ez du bilatzen soilik gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen jarduera bideratzea. Haren inguru sozial, politiko eta ekonomikoan ere *eragin* nahi du, bere Eginkizuna lortzeko onartzen dituen printzipioak eta balioak defenditzeko modu koherentean. Eragin hori, lehenik eta behin eta lehenetasun osoz, Gizateari lotzen zaizkion egituretan sustatu nahi du: erakunde sustatzaileetan, erakunde bazkideetan eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideetan.



## Printzipio hauekin bat egiten dugu

### → Berdintasuna

Berdintasuna, kode honen barruan, gizaki guztiak, berez, baliotsuak direla eragingarritasunez onartzea eta errespetatzea da, ezin direla manipulatu, ekimen autonomokoak eta kapazak direla; eta horrek bere gaitasunak ondo garatzeko eskubidea ematen diola.

Pertsona guztiok duintasun *bereko* gizakiak gara. Duintasunak nola pertsonarekiko errespetua izateko, hala esku-bidedun gizaki legez onartzeko betebeharra ezartzen du, baita gure desberdintasunak eta berezitasunak onartzea ere.

Ondorioz, desberdintasunezko errealitateak kontuan hartuta, gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresak zein Gizatea lan merkatura sartzeko gizarte desabantailan dauden pertsonen lanerako gaitasunak garatzera bideratutako tresnak dira, alegia, enplegu arrunt baterako behar dituzten baldintzak lor ditzatela ahalbidetzen dute.

### → Gizarteratzea

Laneratzea, etika kode honen barruan, enplegu arrunt batera sartzeko aukera berdintasuntzat hartzen da. Gizarte eta lanerako ingurune baldintzekin dauka zerikusia oinarrian, eta ingurune horretan laneratzeko aukera berdina nola sortzen dira.

Lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen laneratze prozesuak egokitze individual eta sozial bat eskatzen du, eta laneratzeko enpresetan dauka egokitze horrek baliabide nagusia.

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek enplegu normalizatura sartzeko baldintzak sortzen laguntzeko honetan egiten dute indar:

- Zailtasunak dituzten pertsonekin egokitze indibidualerako estrategiak sustatzean, laguntza prozesu baten bitartez eta lanpostu bateko zereginak beteta.
- Gizatearen bultzadaren eta koordinazioaren bidez, lan merkaturaren sartzeko bilatzen duen tresna aktibo eta erabilgarri bihurtzeko programen, ekintza sozial eta politikoen, eta abarren bidez inguruarekiko gizarte egokitzerako estrategiak sustatzean.

### → Gizarte eraldaketa

Gizateak eta Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresen Erakunde Sustatzaileek gizarte justuago bat eraikitzeko lan egiten dugu, laneratzeko enpresak sustatuta, gizarte-ko eta laneko bazterketaren kontrako borrokarako tresna gisa, enplegu arruntera sartu ahal izateko. Eta hori guztiori ekonomia solidarioari eta alternatiboari eta hori bultzatzen duten ekimenei buruzko ikuspegi partekatu batetik egiten dugu, arreta berezia eskainiz gure gizartean bazterketa eragiten duten egiturak eraldatzea Eginkizuntzat hartzen dutenei.



## Gure lanerako estiloa definitzen duten balioak

### → Kalitatea

Kalitate etikoa bilatzen dugu, laneratzeko enpresek zein Elkarreak ematen dituzten zerbitzuen bikaintasunaren bidez, zeinak beren jarduera eremu guztietako ardatz nagusizat pertsonen eskubideen berme eragingarria jartzen baitu. Horrez gain, kudeaketaren kalitateagatik izan nahi dugu ezagun, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresek eta Gizateak bultzatzen dituen prozesu guztien (harremanetakoak eta antolakuntzakoak) etengabeko hobekuntzaren bidez.

### → Parte-hartzea

Nola Gizatean hala gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan parte hartzea bultzatzen dugu, bai kontsultabideen bidez bai erabaki-bideen bidez (ebaluazioak, batzararak, lantaldeak, etab.), eta inplikazioa bilatzen dugu erabakiak hartzean, erabakietan horizontaltasunik handiena bermatzen saiatuz.

### → Gardentasuna

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan eta Gizatean egiten dugun lanean ekonomia solidarioarekiko gure konpromisoa erakusteko bitartekoa gardentasuna izatea nahi dugu, kudeaketarekin, jarduerekin eta gure antolatze irizpideekin zein emaitzekin zerikusia duten kontuei buruzko informazioa aldian-aldian eman ahal izateko.

### → Irabazi asmorik eza

Giza eta gizarte sustapena helburu nagusizat duten ekimen solidario bezala eratu ginen. Elkarrea, arrazoi horre-

xegatik, eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak, beraien eginkizunarekiko koherentziaz, irabazi-asmorik gabeko ekimenak dira

### → Erantzukidetasuna

Gizatearekin eta gizarteratzeko eta laneratzeko enprekin lotuta dauden eragile guztiek erantzukizunak hartzea nahi dugu, alde guztien eskubideen eta betebeharren arteko beharrezko oreka bilatuta, Gizatearen Eginkizunaren eta laneratzeko enpresen Eginkizunaren garapenean parte hartzen duten talde guztiei behar-beharrezkoeneko mailetan erantzukizunak banatuta.

### → Aukera berdintasuna

Gainerakoen aurrean, beraien kontroletik kanpoko inguruabarren ondorioz (zori naturala edo gizarte zoria), desabantaila, bazterketa, ahultasun edo erorkortasun egoeran dauden pertsonak gizartean zein lanean parte hartzeko baldintza berdinetan jarri ahal izateko neurri desberdintzaile batzuk ezarri behar direla aitortzen dugu.

### → Genero berdintasuna

Lan munduan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko sozializazio berezitu eta baztertzailaren ondorioz, bereizkeria profesionala dagoela aitortzen dugu.

Ondorioz, emakumezkoen eta gizonezkoen egoera, baldintza, asmo eta beharrian desberdinen kontsiderazio sistematikoa ezartzeko beharrezko nabarmentzen dugu, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan desberdintasunak ezabatzeko berariazko helburuak eta jarduerak sartuta.

## → Lankidetzta

Autonomiaz lan egiten dugu, eta Gizatearen eta, batez ere, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen antolakuntza esparruaren barruan, lehiaren ordeztu, lankidetzta bultzatu nahi dugu, hau da, beste erakunde eta elkarte publiko zein pribatuekiko elkarlana bilatu nahi dugu.

Elkarlana da gure lanerako estiloa, eta lankidetzta eta lehiarik eza bultzatzen ditugu gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen arteko harremanetarako oinarritzko gako gisa.

## → Pertsonalizazioa

Gizatearen nahiz gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen ardatza pertsonak dira. Gure jardueraren muina lan merkatu arruntan zailtasunak dituzten pertsonak laneratzeko da, baina, beren ezaugarri indibidualak errespetatuta eta abstraktutat edo talde generiko bateko kideztatu hartu gabe; beraien beharrezkoak bereziak eta berezkoak onartzen ditugu; eta beraietako bakoitzari erantzun pertsonalerako duten eskubidea onartuta laguntza prozesu baten bidez.

## → Iraunkortasuna

**Iraunkortasun ekonomikoa (bideragarritasuna):** Gizatearen eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen erantzukizuna da beraien ekimenen bideragarritasuna eta jarraikortasuna ahalbidetzeko baldintzak sortzea, horrela, lan munduko bazterketaren kontrako borroka helburutzat duten egiturak eta baliabideak egonkortzea bermatzeko.

Gizartearekiko hartzen dugun erantzukizunaren oinarritzko elementu bat enpresa-proiektu sendoak sortzea da, ondo kudeatutakoak, gure jarduerak denboran egonkortu

ahal izateko.

**Ingurumenaren iraunkortasuna:** Gizateak eta laneratzeko enpresek, Karta Solidarioan hartutako konpromisoaren arabera, ingurumena errespetatzen duten ekintzak, produktuak eta ekoizpen metodoak bultzatzen dituzte. Ingurumen iraunkortasun hori barruko funtzionamenduan zein kanpora begirakoan islatu beharko da, ingurumenaren iraunkortasuna bultzatzen duten egitasmoei lagunduta eta haiekiko konpromisoan.

## → Ingurunearekiko konpromisoa

Gizatea eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak gizarte ingurunearekin konprometituta daude, bertan egiten dituztelako beren jarduerak, eta, horrek, beste erakunde batzuekiko lankidetzta eskatzen du, baita sareetan parte hartzea ere, esperientzia solidario jakin batzuek eredu sozioekonomiko alternatibo bat sortu ahal izateko bide bezala.

Gizarteko erabaki guneetan egoten saiatzen gara, baita gure gizarteko ekonomia- eta enpresa-sareetan... ere. Eta ekonomia egiteko beste modu batzuk indartzeko bidean aurrera egingo duten egitasmo erabakigarrietan parte hartzeko prest eta gogotsu gaude, baita lan munduan eskubideen kultura bat ahalbidetu nahi duten egitasmoetan ere.


Gizateak eta laneratzeko enpresek ingurukoekin dituzten jardueren oinarria etika kode honetako printzipioak eta balioak izango dira. Beren jardueraren eguneroko errealitatean eragingarri eta praktikoki bihurtzeko modua horietako bakoitzarentzat jarraian aurkeztuko dugun betebeharrak eta arau etikoen esparruaren bidez izango da.

## Jarduera-arau hauek betetzeko konpromisoa hartzen dugu


Etika kodea hiru ataletan banatuta dago, eta horietako bakoitzak erantzukizun maila jakin bati eragiten dio. Jarraian, eta grafikoki, horietako bakoitzari dagozkion printzipioen eta balioen zerrenda bat aurkeztuko dugu. Jar-

duera-arauak ezartzeko kontuan hartu dugu Gizatean eta laneratzeko enpresa bazkideetan, modu praktikoa, printzipio eta balio horiek sustatu nahi direla.


### 1 Gizatea Elkartea



## 2 Erakunde sustatzaileak



## 3 Gizarteratzeko enpresak



## 1. Gizatea **Elkartea**

### ➔ Kalitatea

**1.1.** Gizateako gobernu-organismoek kalitatea bilatuko dute Elkartearen zerbitzuan eta berrikuntza bere eginkizunaren garapenean.

**1.2.** Gizateako gobernu-organismoek, egoera zailen aurrean irtenbideak bilatzeko, efizientzia eta eragingarritasuna bilatuko dute, eta arrazoizkotasuna erabakiak hartzerakoan.

**1.3.** Gizateako gobernu-organismoek kudeaketa garden eta zintzoa bermatuko diete gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideei, baita kalitatezkoa eta Elkartearen eginkizunarekiko, ikuspegiarekiko eta balioekiko koherentea ere.

**1.4.** Gizateako gobernu-organismoek gizarteratzeko enpresen gogobetetasun maila baloratzeko eta zaintzeko konpromisoa hartuko dute, baita enpresa horiek Elkartearen Eginkizunarekiko duten lotura maila ere.

**1.5.** Gizateako batzarrak erantzukizunez erabakiko du zein den gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek ematen dituzten zerbitzuen kalitate atalasea zein den. Era berean, sustatzeko eta ezarritako helburuak betetzeko neurriak zein diren ere ebatziko du, zerbitzuaren maila etikoaren eta kalitatearen arabera, bereziki laneratzeko prozesuei dagokienez.

**1.6.** Gizateako gobernu-organismoek etika kode hau hartzea eta ezartzea sustatuko dute, eguneroko jardunerako erreferentzia-marko bezala eta Elkartearen eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideen harremanetarako, hain zuzen ere.

### ➔ Parte-hartzea

**1.7.** Gizatearen eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideen arteko jarduera parte hartzean oinarrituta egongo da, Gizatearen lidergoa, batzar bidezko elkarrizketa eta lantaldeen bitarteko sare-lana bermatuta. Gizatea enpresa bazkide guztien asmoak biltzen saiatuko da uneoro.

**1.8.** Gizateak gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak Elkartera lotzea ahalbidetuko du, uneoro haien osotasuna zainduta eta sustatzen dituen ekimenetan parte hartzea erraztuta.

**1.9.** Gizateako gobernu-organismoek hauek zainduko dituzte: hautaketa prozesuetan parte hartzea bermatzen dela, erabaki erantzuleak hartzen direla eta Elkartearen barruan pertsona edo talde batzuek abantailazko egoerarik ez dutela.

**1.10.** Gizateak adostasuna hartzen du erabakiak hartzeko ohiko sistematzat, horixe baita iritzi guztienganako errespetu eta balorazio bermerik onena.

**1.11.** Komunikazio egitura eragingarriak eta errazak ezarriko dira, baita erakunde bazkideek zein haiekin zerikusia duten pertsonen adierazteko behar diren bitartekoak izan ditzaten ere, eta horretarako aukerak, bideak eta bitartekoak ezarriko dira, beren usteak askatasunez adieraz ditzaten, eta beraien kritikak eta iradokizunak onartu ahal izateko moduan.

Edozein kasutan, iritziak, eskakizunak, proposamenak zein kritikak gobernu-organismoetara iritsi ahal izateko bitartekoak

ezarri beharko dira, eta bitarteko horiek Gizatearen Barne Araudian jasota egon beharko dira.

**1.12.** Gizateako gobernu-organoez zaindu egingo dute Elkartek talde politiko, ekonomiko edo bestelakoan aurrean bere independentzia gordetzen duela, eta hori bermatzeko estatutuaren funtzionamendu-arauak sortuko ditu.

### ➔ Gardentasuna

**1.13.** Gizateako gobernu-organoez kudeaketaren gardentasuna eta erabakiak hartzeko zintzotasuna zainduko dute, zeina gizarte auditoria bidez ebaluatu ahal izango den.

**1.14.** Gizateako gobernu-organoez gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetik harremanak beren autonomiaren eta independentziaren errespetuan oinarrituko dituzte, eta enpresa horien parte hartze informatua bilatuko du momentu guztietan, gardentasunaren bidez eta dagokion informazioa emanda.

**1.15.** Gizateako gobernu-organoez bere lanean zein gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen lanean informazioaren konfidentzialtasuna bermatuko, eta horretarako berriak arauak jasoko ditu Barne Araudian.

**1.16.** Gizatea gizartearen zerbitzura dagoen ekimen bat da eta, horren arabera, aldi-aldi ondorengoei buruzko informazioa eman eta zabaldu behar du: jarduerak, programak, helburuak, baliabideak lortzeko moduak, baliabide kopurua, eta gobernu-organoen osatura.

Urtean behin jardueren memoria bat argitaratuko du, bazter nagusiak onartu ondoren, eta, bertan, informazio hori jasoko da.

**1.17.** Gizateako gobernu-organoez gizarteari ematen zaion informazioa benetakoa dela zainduko dute.

### ➔ Irabazi asmorik eza

**1.18.** Gizateak enpresa bazkideen ongiaren arabera bideratuko bere jardunbidea, eta inola ere ez interes partikularren arabera.

**1.19.** Gizatearen kudeaketa ekonomikoaren ezaugarria erantzukizuna eta heretura izango dira.

**1.20.** Gizateako gobernu-organoez bere jarduerarako eskatutako baliabide ekonomikoan gaineko informazio argia emango du, hau da, baliabide horien erabilera modu zehatz eta egiaztagarrian adieraziko du.

**1.21.** Gizateak balantze ekonomikoan esleitu beharko dio urteko memoriari, eta enpresa bazkideei datu ekonomiko berri emango die, baita berarekin lan egiten duten kontraparte guztiei ere.

**1.22.** Gizateako gobernu-organoez Elkarteen irabazteko asmorik eza bermatuko dute Administrazioaren aurrean, baita administrazioaren elkarlana eta informazio trukea ere beharrezkoa izanez gero, baina beren autonomia errespetatuta edozein kasutan.

**1.23.** Gizateako gobernu-organoen dauden pertsonak ez dute izaera hori Administrazioaren beste gizarte eragile batzuekiko harremanetarako abantailak lortzeko erabiliko. Ildo berezituak argi eta garbi zehaztuko dira, hirugarrenen aurrean ordezkaritza bikoitzak eragozteko.

### ➔ Erantzukidetasuna

**1.24.** Gizatearen eta erakunde sustatzaileen erantzukizuna izango da kode honetan jasotako balioak, printzi-

pioak eta arau etikoak gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan ezartzea; eta enpresa horiek beste erakunde edo elkarte publiko zein pribatu batzuekin ezartzen dituzten harremanetan ere sartzen direla ikuskatu beharko dute, baita eguneroko praktikan ezartzen diren ere.

**1.25.** Gizateako gobernu-organoek zainduko beharko dute gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideen jarduera osoa lan merkatu arruntetik baztertuta dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzeta sustatzera bideratuta dagoela, eta laneratzeko enpresek bermatu behar dituzten nahitaz betetzeko baldintza guztiak betetzen diren ikuskatu behar dute.

**1.26.** Erakunde bazkideen eta horietako langileen interes ekonomikoak eta sozialak defendituko, sustatuko eta ordezkatuko ditu administrazio publikoen, gizarte eragileen, erakundeen eta elkarte publiko eta pribatuen aurrean.

**1.27.** Berezkoak dituen interes ekonomikoak eta sozialak defendituko ditu, eta horretarako ekintza bitarteko ohikoak gizarte elkarrizketa eta erakundeetako parte hartzea izango dira.

**1.28.** Komunikazio eta sentsibilizazio kanpainen bazterketa errealitateen ezagutza objektiboa sustatuko du, gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak estigmatizatu gabe eta haien irudia instrumentalizatu gabe. Ez dira gizarte jarrera paternalistak sustatuko, eta gizarteratzearen irudi errealista eta gizartearen aurrean positiboa sustatuko da.

**1.29.** Gizateako gobernu-organoek koherentzia, zuzenbidea eta apaltasuna bilatuko dute Elkartearen jardunean, eta honakoak bermatuko dizkiete gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideei:

- Gobernu- eta ordezkari-organoen parte hartu ahal izatea, baita Elkartearen jardueretan ere.
- Batzar nagusira joan ahal izatea eta boto eskubidea, Gizatearen estatutuaren ezarritakoaren arabera.
- Elkarteko organoen hartutako erabakiak legearen edo estatutuaren kontrakoak direla ustez gero, erabaki horiek aurkaratzeko aukera.
- Bere iritzia emateko aukera eta iradokizunak eta kezak aurkezteko.
- Gizateako ordezkari-organoen hautaketa eta hautagaia izateko aukera.
- Gizateak garatzen dituen jardura guztien gaineko informazioa eta ezagutza.
- Gobernu- eta ordezkari-organoen osakerari, haien kontuen egoerari eta egoera ekonomikoari eta ondarekoari buruzko informazioa.
- Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresaren aurkako diziplina neurriak hartu aurretik entzuna izateko eskubidea eta neurri horiek hartzeko zio izan diren gertakari buruzko informazioa jasotzea, eta zigorra ezarri gero, erabaki hori arrazoitua izan behar da.
- Elkartetik sustatutako zerbitzuekin edota prestakuntzarekin Gizatearen barruan aurreikusitako era guztietako abantaila onura atera ahal izatea, edo lantaldean aktiboki parte hartzeko aukera izatea.

## ➔ Genero berdintasuna

**1.30.** Gizateak gobernu-organoetarako hautagaitzetan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko oreka dagoela zainduko du.

**1.31.** Gobernu-organoeak bermatu egingo dute berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren kontrako arloan indarrean dagoen araudia zuzen ezartzen dela.

**1.32.** Gizateak gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aukera berdintasunaren aldeko konpromisoa sustatuko Elkartearen barruan eta enpresa bazkideetan.

### ➔ Lankidetzak

**1.33.** Gizatea gizarteratzeko eta laneratzeko eta bazterketaren kontra lan egiten duten administrazio publikoekin, erakundeekin, elkarteekin eta gizarte eragileekin koordinazioan eta lankidetzan arituko da.

**1.34.** Gizateako gobernu-organoeak erakunde edo instituzio publiko zein pribatuarekin dituzten harremanak beraien artean adostutako hitzarmenarekin bat datozela zainduko dute, esklusibotasunak eragotzita. Gobernu-organoeak ez dute onartuko, akordiorako baldintza bezala, beste erakunde kolaboratzaile batzuekin Gizateak hitzarmenak egiteko aukerei mugak jartzerik onartuko.

**1.35.** Erakunde edo instituzio publiko zein pribatuarekin lortutako hitzarmenak agiri batean jasoko dira eta, bertan, hauek ezarriko dira: helburuak, epeak, bi aldeek konpromisoak, espero diren emaitzak, ebaluazio-sistema, ipiniko diren baliabideak eta lankidetzaren epea. Hitzarmen hori publikoa izango da konfidentzialtasunerako betebeharrak eragiten ez dien arlo guztietan.

**1.36.** Gizateak gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen garapena, bultzatuko, lagunduko eta sustatuko du, edozein esparrutako lurralde batasunak indartuko ditu, eta egon badaudenetan parte hartze aktiboa bultzatuko du, baita espainiar Estatuan zein Europako Batasunean sor litezkeenetan ere.

Berariaz, berak bezala, gizarteratzearen eta laneratzekoaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren helburua duten ekimenekiko lankidetzak sustatuko eta babestuko du; eta bazterketaren kontrako sareetan parte hartuko du.

### ➔ Ingurunearekiko konpromisoa

**1.37.** Gizateak gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen balioa aldarrikatuko du, inklusiorako oinarri bezala, une bakoitzean dagozkion ekintza sozial eta politikoen bidez.

**1.38.** Gizateako gobernu-organoeak, bazterketa egotan dauden pertsonen laneratzeko bidez, iritzi publikoan gizarteratzekoaren aldeko giroa sortzeko instituzio ofizialek, erakundeek eta erakundeen federazioek egindako saiakerak sustatuko eta babestuko dituzte.

**1.39.** Gizateak botere publikoekiko, sektore pribatuarekiko eta beste gizarte eragile batzuekiko harremanak sustatuko ditu, horien politiketan eragin positiboa izateko asmoarekin. Hori guztiori esparru estrategiko baten barruan eta kode honetan zehazten diren printzipio etiketan oinarrituta.

**1.40.** Estrategian antzekotasunak dituzten beste erakunde eta gizarte mugimendu batzuekin akordioak eta aliantzak bilatuko dira, batez ere ekonomia solidarioko ekimenekin eta bazterketaren kontrako borrokarekin konprometituta dauden talde edo erakundeetatik datozen ekimenekin.

**1.41.** Modu berezian, Gizatea antzeko ekimenekin aliantzak lortzen saiatuko da, eta, horretarako, lankidetzak, elkartrukea eta beharrianetarako babesa sustatuko duten estrategiak garatuko ditu.

**1.42.** Gizateak ez du jendaurrean jarrera anbiguorik erakutsiko, gizarteratze eta lan merkatu arruntetik baztertu-



ta dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzearekin zerikusirik ez duten bestelako interesen onurarako erabil ez ditzaten.

**1.43.** Gizatearen eskakizunak eta aldarrikapenak egiteko ekintzek ahal denik eta adostasun zabalena izango dute, eta protagonismo pertsonalak ekidin egingo dira.

**1.44.** Elkarteko gobernu-organoetako kideak erne egon beharko dira eta gizarteari Gizatea proiektuaren balioak zabaltzeko dituzten aukera guztiak baliatu behar dituzte.

## 2. Erakunde sustatzaileak eta pertsona fisiko edo juridikoak

### → Parte-hartzea

**2.1.** Gizarteratzeko eta laneratzekeo enpresen erakunde sustatzaileek ekonomia solidarioko ereduak sortzeko erakunde bezala duten rola hartuko dute, eta, horretan, gizarteratze prozesuan dagoen pertsonaren garapenerako nukleoa izateko erantzukizuna onartuko dute, baita pertsona hori enplegu arruntan sartzeko babesa izateko ere.

### → Irabazi asmorik eza

**2.2.** Gizarteratzeko eta laneratzekeo enpresen erakunde sustatzaileek ez dute enpresa horiek garatutako jardueraren bidez irabazteko asmorik izango, eta ez dituzte sortu diren helburuetarako ez diren beste batzuetarako erabiliko.

**2.3.** Pertsona bazkideek, fisikoak zein juridikoak izan, ez dute irabazteko asmorik izango, ezta legez kanpo edo desleialtasunez kostuak merkatzerik bilatuko, eta ez dute gizarteratzeko eta laneratzekeo enpresen eginkizuna garatzea ez den beste interesik izango.

### → Erantzukidetasuna

**2.4.** Erakunde sustatzaileek eta pertsona bazkide fisiko zein juridikoek gerentziarekiko eta kontratatutako langileekiko erantzukidetasunez jardungo dute, gizarteratzeko eta laneratzekeo enpresen eginkizunaren garapenerako babesa eta konfiantza emanez, eta kudeaketan konpromisoz jardunez.

**2.5.** Erakunde sustatzaileek eta pertsona bazkide fisiko zein juridikoek erantzukidetasunez jardungo dute Gizatearekiko harremanetan. Ez dute Gizatearen lankide izaera behar ez bezala erabiliko, beraien intereserako, irudi arrazoiengatik ez beste arrazoi batzuegatik, Elkartearen beraren kalterako.

**2.6.** Erakunde sustatzaileak eta pertsona bazkide fisiko zein juridikoak oso sentsibleak izango dira gizarteratzeko prozesuan dauden gizarte desabantailarik larrieneko pertsonekin, eta pertsona horien beharrak behar bezala artatzeko arau eta protokolo bereziak sortuko dituzte, baita gizarteratze prozesuaren berezko erantzukizunak garatzeko ere.

## ➔ Aukera berdintasuna

**2.7.** Erakunde sustatzaileek eta pertsona bazkide fisiko zein juridikoek gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako kontratudun langileen aukera berdintasuna zainduko dute, bai laneratzean, bai lanbide prestakuntzan eta sustapenean, bai lan baldintzetan.

**2.8.** Ekintza positiboko neurriak hartzea, baliabideetako berdintasun tratua eta haiekiko harremanetako inparzialtasuna bilatuko dituzte.

## ➔ Genero berdintasuna

**2.9.** Erakunde sustatzaileek zaindu egin behar dute be-  
raiek sustatutako enpresen eta Gizatearen inguruko jar-  
duera guztiak jatorri sexistako bazterketak murriztera eta ezabatzea bideratuta egotea.

**2.10.** Gizarteratze enpresek eskaintzen duten tresnari lan merkatutik urrutien dauden emakumeek onura atera ahal izateko neurriak bultzatuko dituzte enpresa sustatzaileek enpresa sustatuetan eta Gizatearen inguruan.

## ➔ Pertsonalizazioa

**2.11.** Gizatearen enpresa bazkideren baten gizarteratze plaza okupatzen duten langileei arreta pertsonalizatu, indibidualizatu eta kalitatezko bat bermatzen dien laguntza plana betetzen dela zainduko eta bermatuko dute enpresa sustatzaileek.

**2.12.** Prozesu pertsonalizatu horrek pertsonari bideratu-  
tako praktika arautu behar du, ibilbide generikorik disei-  
natu gabe eta pertsona bakoitzaren zailtasunak, inguru-  
nea eta gizarteko eta laneko ibilbidea kontuan hartzen ez  
dituzten erantzunak eta ekintzak baztertuta.

## ➔ Lankidetzeta

**2.13.** Enpresa sustatzaileek Gizateako balioak eta printzipioak betetzeko lankidetzan arituko dira, balio eta printzipio horiek zabaltzen lagunduta eta sentsibiliza-  
ziorako eta ingurunearekiko konpromisorako helburuei lagunduta.

## ➔ Ingurunearekiko konpromisoa

**2.14.** Erakunde sustatzaileek gizarteratzeko eta lanera-  
tzeke enpresek duten balioa aldarrikatuko dute, une ba-  
koiitzean dagozkion ekintza sozial eta politikoen bidez  
gizarteratzeko oinarri bezala duten balioa, hain zuzen ere.

**2.15.** Gizarteratzeko enpresen erakunde sustatzaileek,  
bazterketa egoeran dauden pertsonen laneratzearen bi-  
dez, iritzi publikoan gizarteratzearen aldeko giroa sortze-  
ko instituzio ofizialek, erakundeek eta erakundeen federa-  
zioek egindako saiakerak sustatuko eta babestuko dituzte.

**2.16.** Erakunde sustatzaileek zainduko dute Gizatearen  
inguruko jardura guztien oinarria pertsonen gizarteratze  
eta laneratzeko prozesuan eskubide berdintasuna eragotziko  
luketen bazterketak murriztera eta ezabatzea bideratuta  
egongo direla.

### 3. Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak

#### → Kalitatea

**3.1.** Erantzukizun printzipioaren arabera, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek zerbitzuak egoki kudeatuko dituzte, efizientzia eta kalitate irizpideak ezarrita, beren eginkizunaren garapenarekin lotutako eskakizun bat baillitzan.

**3.2.** Kudeaketaren ardura duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen zerbitzu eta jarduera bakoitzean gerentzia estrategikoa eta kalitatezkoa egingo dute, balioetan oinarritutakoa.

**3.3.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek behar diren bitarteko guztiak jarriko dituzte kalitate plana betetzeko, eta profesionalen jarrera positiboak ahalbidetuko dituzte haien aurrean, duten izaera berritzaileak eragin ditzakeen zailtasunak murrizteko.

**3.4.** Gerentziak efizientzia eta eragingarritasuna bilatuko dituzte gizarteratzeko eta laneratzeko enpresaren kudeaketan, eta egoera zailletarako irtenbideak bilatu eta erabakiak hartzeko arrazoizkotasuna ezarri beharko dituzte.

**3.5.** Gerentziak zerbitzuaren kalitatea bilatuko du bere Eginkizunaren garapenean.

**3.6.** Kontratututako langileek zerbitzuaren kalitatea, koherentzia, konfidentzialtasuna eta diskrezioa bermatu beharko dituzte, eta bitartekoak eta baliabideak zentzuz erabili beharko dituzte.

**3.7.** Kontratututako langileek modu eraginkorrean erantzungo dute, eta zailtasunen aurrean irtenbideak bilatu eta arrazoitu behar dituzte.

#### → Parte-hartzea

**3.8.** Gizarteratzeko enpresek Gizatean kide bezala duten parte hartzea zehaztuko dute:

- Batzarretara eta antolatutako ekitaldietara joango dira, eta lantaldeetan aktiboki parte hartuko dute.
- Beren eskumeneko erabakiak hartuko dituzte, modu fidagarrian eta behar den moduan informatu ostean.
- Gizateako gobernu-organismoek emandako informazioari behar duen arreta jarriko diote eta, behar izanez gero, argibideak eskatuko dituzte beren erantzukizunak hobeto bete ahal izateko.
- Gizatearen jardueretan parte hartuko dute, baita helburuak lortzeko lanean ere.
- Lurralde taldea indartu eta haren funtzionamenduan lagundu beharko dute.
- Beren portaerarekin Gizatearen izen ona eta ospea gorde behar dute.
- Elkartearen arreta merezi duten kontu guztien berri eman beharko diete Gizateako gobernu-organoei, haiek zuzenean antzematen ez badituzte.
- Gizateak gobernu-organismoetarako eta laguntza-taldeetarako eskatuz gero, erantzukizunak hartzeko prest egon beharko dute.
- Gizateako gobernu-organismoetan genero ikuspegitik ordezkaritza orekatuak egotea zaindu behar dute eta horretarako jarrerak ahalbidetu.

- Ezarritako kuota ekonomikoak ordaindu behar dituzte, baita, estatutuekin bat etorrira, enpresa bazkide bakoitzari egokitu dakizkiokeen derramak eta ekarpenak ere.

**3.9.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako ardura-dunek kontratatutako langile guztien eskubideak onartuko dituzte, eta enpresek beraiek zein Gizateak antolatutako jardueretan parte hartzeko aukerak emango dizkiete: batzarretan, ekitaldietan eta, batez ere, zuzen-zuzenean eragiten dieten kontu haietan guztietan. Aukera hori, edozein kasutan, kontratatutako langileen aukera askatasuna errespetatuta eman beharko da, parte hartze mailak garapen profesionalari eragiten ez dion neurrian.

**3.10.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek kexa eta iradokizun sistema eragingarri bat egotea bermatuko dute, bai langileentzat, bai bezeroentzat.

**3.11.** Kudeaketaren ardura duten pertsonen langileekiko harremanak horien autonomiarekiko errespetuan oinarrituko dituzte, eta langileen parte hartze informatua bilatuko dute uneoro, gardentasunaren bidez eta dagokion informazioa emanda, eta sexu, ideologia... arrazoiengatiko diskriminaziorik ez da egongo.

**3.12.** Kudeaketaren ardura duten pertsonen zaindu beharko dute hautespen prozesuek parte hartzea, erabaki arduratsuak hartzea eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresaren barruan pertsona batzuek edo talde batzuek abantaila positiorik ez izatea bermatzen dutela.

**3.13.** Gizarteratzeko plazak betetzen dituzten langileek lanean beraien laneratze prozesuko kolaboratzailetzat eta arduraduntzat hartuak izateko eskubidea erabiliko dute, elkar laguntzeko jardueretan parte hartuz.

## ➔ Gardentasuna

**3.14.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek, gerezaren bitartez, kudeaketa gardena eta zintzoa bermatuko diete kontratatutako langileei, baita bere eginkizunarekiko kalitatezkoa eta koherentea ere.

## ➔ Irabazi asmorik eza

**3.15.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen ezaugarria izango da beren helburuak lortzeko erabiltzen dituzten bitarteko guztietan funtzionaltasun eta ekonomia irizpideak erabiltzen dituztela.

**3.16.** Kudeaketaren ardura duten pertsonen gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen irabazteko asmorik eza bermatuko dute beste edonoren aurrean.

**3.17.** Kudeaketaren ardura duten pertsonen ez dute kanpoko hornitzaileen aukeraketan beren interesen alde eragingo, eta ez dute hornitzailearen eta erakundearen arteko harremanetan etekin pertsonalik izango.

**3.18.** Hornitzaileak aukeratzeko gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen edo Gizatearen printzipioekin eta balioekin bat datozen erakundeen aldeko diskriminazio positiboa egingo da.

**3.19.** Kudeaketaren ardura duten pertsonen gizarteratzeko eta laneratzeko enpresaren jardunean eta harremanetan koherentzia, zuhurtzia eta apaltasuna bilatuko dituzte.

## ➔ Erantzukidetasuna

**3.20.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen kudeaketa arduratsua eta leiala izan behar da, eta beren Eginkizuneko helburuak lortzea eta garatzea bilatu behar dute uneoro.

**3.21.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako arduradunek gizarteratze prozesuetan dauden pertsonen gaitasunak bultzatuko dituen ingurune bat lortzera bideratutako ekintzak babestuko dituzte, haien garapenean laguntzeko lanpostu bat beteta.

**3.22.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak prozesu horietan dauden pertsona guztientzat irekita egongo dira, batez ere, zirkunstantzia pertsonalak edo bestelakoak tarteko, gizarte egoera larrienean daudenentzat.

**3.23.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan lanean aritzeko kontratatutako pertsonen kontratu-harremana printzipio hauetan oinarrituta egon beharko da:

- Indarrean dagoen legeria bete.
- Sektoreko hitzarmenaren arabera kontratuak. Soldata-mailak erakunde sustatzaileetako gobernu-organoei onartu beharko dituzte.
- Gardentasuna: Kontratu- eta soldata-politika publikoak izango da.
- Elkarrizketaren eta adostasunaren aldeko apustua parte hartzearen artean, bai indibidualki, bai sindikatuetatik ordezkaritzen bitartez. Parte bat zein bestea beren eskakizunen eta eskaintzen erantzuleak izango dira.
- Parte-hartzailea: Kontratatutako pertsonak erakundearen ibilbidean parte hartu ahal izateko bideak ezarriko dira. Langileen sustapena berariaz zainduko da, eta prestakuntzarako eta garapen profesionalerako aukerak eskainiko dira.

**3.24.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek langileak kontratatuzko prozesuak arautzeko behar diren protokoloak ezarriko dituzten, argitasuna, gardentasuna eta inpartzialtasuna zainduz, eta faboritismo egoerak baztertuz.

**3.25.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek langileak kontratatu diren zereginetan behar duten garapena izan dezaten bitarteko egokiak ezarriko ditu. Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako gerentziek autonomiaz tratatuko dituzte langile kontratatuak, eta adierazpen askatasuna, hautatzeko gaitasuna, erabaki hartze informatuak eta laneko independentzia eta autodeterminazioa ahalbidetuko dituzte.

**3.26.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan kontratatutako langileen autonomia eta erantzukizuneko esparru propioa errespetatu beharko du gerentziak.

**3.27.** Administrazioarekiko harremanetan, lankidetzan arituko da eta, beharrezkoa izanez gero, informazioa trukatuko ere egingo du, baina, edozein kasutan, bere autonomia errespetatu beharko du.

**3.28.** Kudeaketaren ardura duten pertsonak ez dituzte erabiliko gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak administrazioekin edo erakunde publiko zein pribatuekin dituen kontaktuetatik eta lankidetzetatik lortutako harreman pertsonalen bidezko abantaila posizioak.

**3.29.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen kudeaketaren ardura duten pertsonak kontratatutako langileen aukera berdintasuna errespetatuko dute, bai laneratzeko, bai prestakuntzan eta sustapen profesionalean, bai laneko baldintzetan. Ekintza positiboko neurriak hartzea bilatuko dute, baliabideetarako berdintasun tratua eta inpartzialtasuna haiekiko harremanetan.

**3.30.** Kudeaketaren ardura duten pertsonak kontratatutako langileenganako erantzukidetasunez jardungo dute, hau da, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresaren eginkizunaren garapenerako babesa eta konfiantza emanda, eta garapen horren kudeaketarekiko konpromisoak. Gobernu-

organoen kudeaketa, langileekiko, eraginkorra izango da, eta irtenbideak bilatzen eta erabaki arrazoituak hartzen lagunduko du.

**3.31.** Langileek erantzukidetasunez jardungo dute gizarteratzeko eta laneratzeko enpresarekiko, hau da, bere Eginkizunaren garapenarekiko konfiantza erakutsita.

**3.32.** Langileek gardentasuna eta zintzotasuna bermatuko dute beren lanean.

**3.33.** Langileek ez dute beren izaera erabiliko antzeko eremuetan lan egiten duten erakundeekin dituzten harremanetan beraientzako abantailak lortzeko, ezta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresarekin lankidetzan diharduten beste erakunde publiko zein pribatu batzuekin dituzten harremanetan ere.

**3.34.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako langileek lanean ari diren erakundeko zein Gizateako printzipioak eta balioak errespetatuko dituzte, eta kode honetan jasotako jarduera-arauak betetzen lagunduko dute.

### ➔ Aukera berdintasuna

**3.35.** Gerentziak gizarteratzeko eta laneratzeko enpresan lan egiten duten profesionalen intimitatea eta dibertsitatea errespetatu beharko ditu. Era berean, tratua errespetuzkoa izango da, bai pertsonarekiko berarekiko, bai egiten duten lanarekiko, eta esku artean dituen datuen konfidentzialtasuna bermatu beharko du.

**3.36.** Gerentziak ez ditu diskriminazioz tratatuko kontratatutako langileak, baizik eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresaren eginkizuna garatzen duten profesional gisa dituzten eskubideak errespetatuta.

### ➔ Genero berdintasuna

**3.37.** Familia eta prestakuntza-lana bateratu ahal izateko neurriak ezartzea ahalbidetuko du gerentziak.

**3.38.** Gerentzia talde profesioaletan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko oreka bat lortzen saiatuko da; eta lanpostuak zehazterakoan sexu jakin batentzat egokitzat edo desegokitzat markatzen duen edozein konnotazio baztertuko du.

**3.39.** Langileek berdintasunezko tratu bat izan beharko dute, eta baztertu egin beharko dituzte emakumezkoak zein gizonezkoak zeregin jakin batzuk egiteko gauza diren edo ez zalantzan jartzen duten jarrerak.

### ➔ Lankidetzaz

**3.40.** Kudeaketaren ardura duten pertsonak Gizatearen sare-lana bultzatuko dute beste erakunde batzuekin, baita Administrazioarekin ere.

**3.41.** Kudeaketaren oinarria lankidetzaz izango da, ez da baimentzen irabazi pertsonalik, eta beste erakunde edo elkarte batzuekin sarean egingo da lan, eta horiekin gobernu-organoak zein langileak lankidetzan arituko dira eta informazioa trukatu dute.

**3.42.** Langileek lankidetzarako jarrera izan behar dute, eta irabazteko asmo gabeko izaera eta sare-lana bermatu behar dituzte.

**3.43.** Langileak gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako kudeaketa-organoekin lankidetzan arituko dira, eta behar den informazio-trukea eta kolaborazioa ahalbidetuko dute.

**3.44.** Langileen arteko harremanen oinarria lankidetzaz, erantzukidetasuna eta elkarrekiko errespetua izango dira.

## ➔ Pertsonalizazioa

**3.45.** Enpresetan gizarteratzeko plaza duten langileen prozesuetan jasotako baldintzak betetzen direla zainduko du gerentziak, eta haien gaitasunak bultzatuko ditu eta gaitasun berriak garatzen lagunduko die.

**3.46.** Gerentziak gizarteratze plazan dauden pertsonen diferentziarako errespetua bermatuko du, errespetuzko tratuarekin, bakoitzaren intimitatea errespetatuta, eta eskua artean dituzten pertsona erabiltzaileen datuak konfidentzialtasun osoz erabiltza.

**3.47.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan plaza bat duten pertsonen prozesu pertsonaletako lana babes-tuko du gerentziak.

**3.48.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek, teknika-rien eta laguntzarako langileen bidez, ahal denik eta gehien, gizarteratzeko prozesuan dauden pertsonen ekimena bul-tzatuko dute, lan eremu jakin batean haien gaitasunen garapena ahalbidetzeko bitarteko eragingarri eta materia-lak sortuta.

**3.49.** Laguntza-prozesuak prozesu horien hartzailleak diren pertsonen autonomiarik handiena lortzera bideratuta egon behar dira, eta haien parte hartzea bultzatu behar dute, mendekotasun egoerak sortzea edo egotea eragozteko.

**3.50.** Teknikariak eta laguntzarako langileek gizartera-tzeko prozesu pertsonal bat garatzea ahalbidetuko dute, horretarako gizarteratze prozesu batean dauden pertsonen laguntza indibidualizatua emanda. Beren zereginak betetze-ko, prozesuaren kalitatea bilatuko dute, eta, horretarako, egon dauden laguntza-tresnak baliatuko dituzte, prozesu hori modu sistematikoan, egituratuan eta antolatuan prestatu ahal izateko.

**3.51.** Kontratatutako langileek harremanetarako errefe-rentzia-esparrua izango da pertsona guztiak egin dezake-tela aurrera horretarako laguntza badute.

**3.52.** Kontratatutako langileek gizarteratzeko plaza ba-tean dagoen langile bakoitzaren indibidualtasuna erres-petatuko dute, eta guztiak tratatuko dituzte errespetuz, haien intimitatea gordez eta beren datuen konfidentzial-tasuna bermatuz.

**3.53.** Enpresetara lotuta eta gizarteratze prozesuetan dauden pertsonak beren prozesuetako subjektu aktiboak dira eta, horren arabera, beren ibilbidearen ondoriozko erantzukizun guztiak hartuko dituzte.

## ➔ Bideragarritasuna

**3.54.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako kude-aketa-organo gorenei dagokie proiektu serio, ekonomikoki bideragarri eta iraunkorra eta ongi kudeatutakoa sortzea, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresaren jarduerak den-boran egonkortu ahal izateko.


## ➔ Ingurunearekiko konpromisoa

**3.55.** Kudeaketaren ardura duten pertsonak erne egon beharko dira eta gizarterari Gizatea Elkartaren proiektu-aren balioak zabaltzeko dituzten aukera guztiak baliatu behar dituzte.

**3.56.** Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako ardu-radunek gizarteratze prozesuetan dauden pertsonen es-kubideak onartzen direla zainduko dute, baita pertsona horiek gure gizarte ingurunean parte hartzen dutela eta gizarte oztupoak gainditzen direla ere.







Etika kodea ezartzea,  
betetzea eta hedatzea



## Etika kodea ezartzeko mekanismoak

Gizatearen batzar nagusiak Etika kode honetako aldaketa eta hedapen guztiak onartuko ditu-

Gizatearen bazkide diren gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek sinatu egin beharko dute, formalki, Etika kodea. Enpresa horietakoren batek kode hau ez sinatzeko justifikazio arrazoituen bat izanez gero, Gizateako gobernu-organoei idatziz azaldu beharko die, eta Gizateak dauka

berezitasun hori kontuan hartzeko ahalmena. Gero, erabaki hori batzar nagusiak berretsi behar du.

Kodea onartu ondoren, Gizateak gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetara bidaliko du, enpresotako estatutuetan, organoetan, prozesuetan... kodearen edukietara egokitzeko egin beharreko egokitzapenak egin ditzaten.

## Etika kodeko edukiak aztertzea eta aldatzea

Kode honetan beharizan berrietara edo Gizatearen jardura berrietara egokitzeko egin beharreko aldaketa guztiak gobernu-organoen aurrean aurkeztu beharko dira,

batzar nagusiak onartzeko, Etika batzordean prestatu eta eztabaidatu ostean.

## Etika batzordea

### Osaera

Gizatearen batzar nagusiak Etika batzorde bat izendatuko du eta, bertan, gutxienez, Gizateako gobernu-organotako kide bat, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako bi ordezkari eta Gizatearen ingurunetik kanpoko bi pertsona egongo dira.

Gizatearen batzar nagusiak Etika kodea onartu ondoren, Etika batzordea izendatzea eta eratzea proposatzen da, eta hiru urteko baliotasuna ematea. Etika batzordeak, eratu ondoren, funtzionamendurako araudi bat proposatuko

du, baita urte osorako lan plangintza bat ere, zeina Gizatearen batzar nagusiak onartu behar baitu.

### Zereginak

- Batzordearen zereginak
- Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen artean Etika kodea sustatzea.
- Kodea betetzen dela zaindu.
- Ezartzeko zailtasunak dituzten arloetan interpretaziorako aholkularitza ematea Gizateako gobernu-organoei.

- Etika kodea betetzen den aztertzea aldiro-aldiro, eta arlorik zailenetan betetze horren erregistro objektiboak ezartzea.
- Egoeraren gaineko txosten bat egitea urtero, azken gomendio eta guzti. Txosten hori batzar nagusiaren aurrean aurkeztuko da, onartzeko.
- Gobernu-organismoak edo batzar nagusiak eskatutako kontuen gainean ebazpenak ematea. Gobernu-organismoek hala eskatuta, eta dagokionean, Gizatea Elkartera sartzeko eskakizunei buruzko txosten positibo bat egingo da.
- Artikulu berriak egitea edo daudenak aldatzea.
- Beste batzorde edo lantalde batzuek ezarritako irizpideak eta prozedurak ikuskatzea, Etika kodearekin koherenteak diren egiaztatzeko.
- Etika kodea Gizatea ingurunearen antolakuntza maila guztietan tresna bizia, ezaguna eta erabilia dela zaintzea (Elkartean bertan, erakunde sustatzaileetan, pertsona fisiko edo juridiko bazkideek, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan).
- Etika kodearen hedapena eta ezagupena sustatzea.

## Funtzionamendua

Etika batzordeak bere kabuz zein Gizatearen batzar nagusiak edo gobernu-organismoek eskatuta jardun ahal izango du.

Batzordeak Elkarteari berari zein gizarteratzeko eta laneratzeko enpresei gomendioak eman edo proposamenak egin ahal izango dizkie, kodearen barruan oso kontuan hartu beharrekotzat hartzen dituen alderdiei buruz.

Batzordeak gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako zuzendaritzei eta, beharrezkoa izanez gero, erakunde sustatzaileei kontsultatuko die zuzen-zuzenean eragiten dieten kontuen gainean.

Erakunde jakin batek ustez kode hau ez duelako bete batzordeak jarduten duenean, urrats hauek egin beharko ditu:

- Hala eskatzen bazaio, batzordeak Gizateako gobernu-organismoari gomendioak egin ahal izango dizkie, dagokion erakundearen jarduera kodearen arabera bideratu ahal izateko.
- Elkarrizketarako zailtasunak badaude edo gomendioak behin eta berriro betetzen ez badira, Gizateako gobernu-organismoek publiko egin ahal izango dituzte, erakunde sustatzaileen eta gizarteratzeko eta laneratzeko gainerako enpresa bazkideen artean, erakunde horri egin zaizkion gomendioak.
- Hala ere, kodea bete gabe jarraitzen badu edo Gizatearen gobernu-organismoek proposatutako hobekuntza-gomendioak ezarri ez baditu, batzar nagusiari zigorrak proposatu ahal izango zaizkio, eta berak erabakiko du.

## Informaziorako konpromisoa

Kodea zabaltzeko erantzukizuna Gizatea Elkartearena, erakunde sustatzaileena eta sinatzen duten gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideena da.

Kodea hedatzeak helburu hauek ditu:

- Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek adostasunez onartutako eta bazkideztat dituen Gizatea Elkarreak sustatutako Eginkizuna, helburuak, konpromiso etikoa eta jarduera-irizpideak argitzea.
- Horiek guztiek sinatutako printzipioak bermatzea eta Gizatea Elkarteko bazkide diren gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen lanerako estiloa zehazten duten balioak betetzen direla bermatzea.
- Gizateako gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideek adostasunez onartutako jarduera-irizpideak euskal gizarteari ezagutaraztea.

Gizatearen eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideen etika kodea kontsultatu nahi duten guztiek eskuratu ahal izango dute, Elkarteko kide izan zein izan ez.

Berariaz,

- Gizateak Etika kodea zabalduko du Elkarteko kide izateko eskabidea egiten duten erakundearen artean. Horretarako ezinbestekoa izango da erakunde bakoitzak Etika kodea ezartzeko, betetzeko eta zabaltzeko konpromisoa ezartzen duen deklarazioa sinatzea.
- Enpresa sustatzaileek, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa sortzeko plangintzan, Etika kodean jasotako jarraibideak izango dituzte erreferentziatzat.

- Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek, profesionalki erakundearekin zerikusia duten pertsonen artean, Etika kodea zabaltzeko berariazko ekintzak egingo dituzte, batez ere erakundera sartzen diren pertsonen zuzenduta. Beraiekin harremanak dituzten erakunde edo elkarte publiko zein pribatuaren artean ere zabalduko dute.

Gizateak postontzi bat izango du Etika kodea zein neurritan betetzen den jakiteko informazio gehigarria eskatzen duten kontsulta guztietarako, edo kodea betetzeari buruzko iradokizunak edo erreklamazioak jasotzeko. Etika batzordeak, hala dagokionean, postontzi horren bidez, eta zentzuzko epe baten barruan, erantzungo die egindako eskabide guztiei, eta urteko txostenean kontsulta horien erreferentzia egin beharko du.

Etika batzordearen txostena, batzar nagusiak onartu ondoren, publikoa izango da.

